

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

INFORMATIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE INFORMÁTICA

Informatika Fakultatea MEMORIA 2021



Informazio gehiago
bertsio digitalean



“Informatika, ezinbesteko bide laguna”

Alexander Mendiburu
Informatika Fakultateko dekanoa

Hitzaurre honen hasieran ez dut COVID-19ari buruz luze hitz egingo. Soilik lerro bat, Fakultateko familiako kide gehienen portaera berriz txalotzeko, erakutsitako jarreragatik: elkarri zainduz eta oztopoen aurrean ahalik eta irtenbide hoberenak topatuz. Mila esker eta aurrera!

Eta orain, goazen gai garrantzitsuetara, eta zentratu gaitezen 2021. urtean Informatika Fakultatean eman diren ekintza eta ekimen nagusietan. Informatikak gure artean denbora asko darama, baina bereziki azken urteotan, informatika eta informatikarekin lotuta dauden kontzeptuak bolo-bolo dabiltza: informatika, datu-zientzia, ikasketa automatikoa, adimen artifiziala, eta abar. Hauen inguruan asko idatzi da: onurak, beldurrak, desabantailak eta abantailak, eta, gai guztietan bezala, ez dago ikuspuntu bakarra. Hala ere, ukazina da, behar bezala erabilia, informatika ezinbesteko bidelaguna dela gure eguneroko bizitzan, arlo profesional zein pertsonalean. Hori bai, ahaztu gabe gizartea eta pertsonak direla zaindu beharreko altxorra, erdigunea, eta garapen teknologikoen onuradun nagusiak.

Azken urte hauetan gero eta enpresa eta erakunde gehiagok informatikari trebatuak behar dituztela adierazte dute (gure ikasleen enplegu-tasa ia %100a da). Gai honetan gure Fakultateak erantzukizun handi bat dauka, eta behar hori behar bezala asetzeko buru belarri gabiltza lanean: urtero ikasle gehiago ditugu, informatikako


gradua birmoldatzen ari gara ahalik eta prestakuntza hobereana eskaintzeko, adimen artifizialeko graduarekin aurrera goaz (2. maila abiatu da aurten), eta lau master bikain eskaintzen ditugu hizkuntzaren prozesamenduan, sistema txertatuetan, eta konputazio ingeniari eta sistema adimenduetan. Formakuntza teorikoa prestakuntza praktikoarekin osatzea ere beharrezkoa da, gure ikasleek lan munduan ikusiko dutenaren zaporea dasta dezaten, eta ildo honetan, 225 enpresekin lankidetzan gabiltza (iaz baino ia 50 gehiago), gure ikasleei praktika eta proiektu interesgarriak eta askotarikoak eskaintzeko.

Ikerkuntza, berezko balioaz gain, kalitatezko irakaskuntzaren ardatz bat ere bada. Eta noski, gure Fakultatearen nortasun-ezaugarria: ezagutza berriaren sortzaile eta hedatzaile izan nahi dugu, ez kontsumitzaile hutsak. Honen erakusle: 145 doktoretza ikasle (gero eta gehiago), ia 20 ikerkuntza talde, eta 7 M € inguru martxan ditugun proiektu desberdinen artean, bai oinarritzko ikerkuntzan bai gizartera bideratutako transferentzian.

Jarraian dituzun memoria honen ataletan, 2021. urtean Fakultatean egindako lana eta ekintza nagusien laburpena topatuko duzu. Informatika gara, eta informatika eta adimen artifiziala bizi ditugu! Zatoz gurekin etorkizuna aldatzera! Eta hori guztia, UPV/EHUko goiburua jarraituz: “Eman ta zabal zazu”.

Giza baliabideak

GOBERNU ORGANOAK



IKASLEAK

Graduko ikasleak	307	322	629
	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	

Master ikasleak	148	Doktoradutza ikasleak	145
-----------------	-----	-----------------------	-----

PERTSONALA

Irakasleak* ²	100	102	Ikertzaileak	53	25	78	Admin. eta zerbitzuak	24
	Doktoreak			PreDok	PostDok			

*Errelebo kontratuak barne

Baliabide orokorrak

25 Laborategi

5 Mintegi

582 konputagailu

2 Bideokonferentzia gela

Datu-Prozesaketa Gunea


Itzulpenerako sistema

Laborategi tematikoak:

- Errealitate Birtuala
- Robotika
- Sareak

Kopia-denda

Taberna+Jangela



Baliabide ekonomikoak

Gastu deszentralizatua	Funtzionamendua	149.864 €
	Inbertsioak	56.890 €

Ikerkuntza proiektuak

Europa	1.557.084 €	435.756 €	Euskal Herria	3.270.835 €	1.026.915 €
Estatua	1.743.719 €	410.310 €	Kontratuak	470.727 €	351.344 €

2021an indarrean 2021ko batezbestekoa

Irakaskuntza

Proiektua
2021/22



Ikaskuntza eta ebaluazio jarraitua
Proiektu edo problemetan oinarritutako metodologia
Eleaniztasuna
Banakako aholkularitza-programa
Prestakuntza-programa
Berdinen arteko tutoretza

Ikasleak

903

Graduak

2

Ingenieritza Informatikoa

Adimen Artifiziala

Hizkuntzak

3

Masterrak

4

Tituludun berriak

90


Kalitate-zigiluak



Masterrak ^(M) eta Doktorego Programak ^(DP)

Konputazio Ingeniaritza eta Sistema Adimentsuak (KISA) M. 

Sistema Txertatuen Ingeniaritza (MISE) M. 

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua M. 

Erasmus Mundus - Language and Communication Technology M. 

Informatika Ingeniaritza DP. 

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua DP. 

Ikasleak erakartzea

Emakumeak Zientzian

Egokitu

Kode ordua

Zientzia Astea

Jolasmatika

Hitzaldiak zentroetan

Batxilergoko ikasleen bisita

Ate irekiak

Orientazio azoka

LH, DBH eta Batxilergoko ikasleei informatika ikasketak zer diren azaltzeko ahalegin berezia egiten dugu.

Covid-a dela eta, zenbait ekimen bertan behera gelditu ziren.

Ikerkuntza

Tesiak

13

Ikerketa taldeak

17

Argitalpenak

154

Ikertzaile nagusiak

39

Ikerketa proiektuetan eta kontratuetan

88

guztira

2,2

milioi batez beste urteko

7,0

milioi indarrean

“Gaur informatikan egiten den ikerketa, bihar zure medikuaren tabletaren app batean egon daiteke”

Ignacio Arganda

Euskara

EHU-Wikipedia 2021

Euskararen Eguna
"Euskara eta software
librea" hitzaldia

Matrikula kanpaina
Zergatik egin
matrikula euskara
taldean?

Ikasleen parte hartzeak

#CodeFight txapelketa

Berdinen arteko tutoretza (BAT)

Infor eguna eta Klabelin eguna

Ikasleen beharrak kudeatu

LOL Txapelketa

Dibulgazioa

Prentsa: **62**

Irratia-Telebista: **18**

Web: **215**

E-makumeak

Gaur8

Gladys saria

Emakumeak zientzian

Sariak **10** 

"Fakultate
hobe baten alde
lanean"



Nazioartekotasuna

Mugikortasunaren murrizketak
eragin handia izan du urte honetan.

Ikerketa-egonaldiak

3 **5**

Atzerrian Fakultatean

8

Ikasleen egonaldiak

12

Atzerrira

5

Fakultatera

17

ALEMANIA **3**

BELGIKA **4**

ESTONIA **2**

ERRESUMA BATUA **1**

FRANTZIA **2**

HEGO KOREA **1**

LITUANIA **1**

NORVEGIA **1**

PORTUGAL **2**



Enpresak

Eskaintza zabala
praktikak egiteko:
169tik **129**
burutu ziren

azken urteetan gorantz doan eskaintza



%97ko enplegu-tasa.
Ikasketak amaitu eta 2
hilabetera "batez beste"
lanean ari dira

34 gradu
eta master amaierako
lan enpresetan

Harreman estua inguruko enpresekin:

225 enpresa

2020 urtean baina %22 gehiago
(59 berriak)

Fakultateko

Unibertsitate-Enpresa Gelak: 5



sherpa.ai

